

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

#### **Vitoria-Gasteiz, Laborategi Hiria udal programaren 2025-2027 aldirako deialdi publikoa eta berriazko oinarri arautzaileak**

2025eko apirilaren 4an egindako bilkuran, Vitoria-Gasteiz, Laborategi Hiria udal programaren 2025-2027 aldirako deialdi publikoa eta berriazko oinarri arautzaileak onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak. Berriazko deialdi honetara aurkeztu nahi duten entitateek oinarri orokor horietara jo beharko dute jakiteko non eta nola aurkeztu eskabideak, zein betekizun eta betebeharrak izango dituzten eskatzaileek, nola justifikatu behar dituzten dirulaguntzak, zein formulario baliatu behar dituzten eta abar.

Udalaren webgunean ([www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)) eta herritarrei laguntzeko bulegoetan kontsulta daitezke biak.

Erabaki horrek administrazio-bidea agortzen du, eta berorren kontra zuzenean aurkez daitezke administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Vitoria-Gasteizko, bi hilabeteko epean, hau argitaratzen den egunaren biharamunetik. Nolanahi ere, alde zuzenetik, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daitezke, Tokiko Gobernu Batzarraren aurrean, hilabeteko epean, hau argitaratzen den egunaren biharamunetik —kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu hori berriazko edo ustez ebatzi arte—. Guztia ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46.1 artikuluetan xedatutakoaren ildotik, hargatik eragotzi gabe interesdunek egoki deritzoten beste edozein errekurtso baliatzeko aukera. Deialdiaren berriazko oinarri arautzaileen publikotasunaren inguruan araudietan xedatutakoa betetze aldera, argitara ematen dira:

#### **“Vitoria-Gasteiz, laborategi hiria” udal programaren 2025-2027 aldirako deialdi publikoa eta berriazko oinarri arautzaileak**

Enpresen Zerbitzua

#### **1. oinarria. Xedea eta aplikazio-eremua**

Deialdi honen xedea hau da: Vitoria-Gasteiz, Laborategi Hiria izeneko programaren deialdiaren bidez Vitoria-Gasteizko udalerrian hiriarentzako interes publikoko soluzio berritzaileak ingurune errealean probatu nahi dituzten entitateek nola parte hartu behar duten zehazten duten baldintzak ezartzea.

Zer da “hiriarentzat interes publikoa duen soluzio berritzailea”?

— “Soluzioa”: produktu, garapen teknologiko, zerbitzu edo metodologia bat edo elementu horien konbinazio bat, arazo bati erantzuteko gai dena. Garapen teknologikoak heldutasun teknologiko handiko faseetan (TRL ingelesezko sigletan) egon behar dira.

— “Berritzailea”: merkaturatzen dauden aldean soluzio berria edo nabarmen hobetua, eta merkaturatu aurreko etapen dagoena.

— “Interes publikoa”: politika, zerbitzu edo ondasun publikoetan eragin positiboa izatea bilatzen duten soluzioak, “inpaktu soziala” eraginez.

## 2. oinarria. Programan parte hartzeko baldintzak

“Laborategi Hiria” dealdian parte hartu ahalko dute enpresek, ikerketa- eta berrikuntza-zentroek, fundazioek, elkarteek, lanbide-heziketako eta unibertsitateko zentroek eta antzeko entitateek, baldin eta betekizun hauek betetzen badituzte:

1. Produktu, garapen teknologiko, zerbitzu edo metodologia bat edo elementu berrien edo nabarmen hobetuen konbinazio bat izatea, gaur egun merkatuan dauden irtenbideekin alderatuta, eta elementu horien portaera proba-proiektu baten bidez probatu nahi izatea ingurune erreal batean. Garapen teknologikoen kasuan, TRL maila altua izan behar dute.

2. Bat etorri behar dute udal estrategia eta/edo planekin, eta interes publikoak izan behar dute hiriarentzat, aintzat hartuta proiektuak ekar ditzakeen onura soziala, ingurumenekoa edo beste nolabaitekoa.

3. Legez eraturata egotea eta gaitasun juridikoa eta jardutekoa izatea.

4. Jarduera legezko, bidezko eta etikoa garatzea.

5. Enpresen kasuan, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda egon beharko dute, eta gainerako erakundeek dagozkien erregistroetan, eskaera egiten denean eta prozesua amaitu arte.

6. Administrazio publikoekiko zerga-betebeharrak egunean edukitzea, eta baita Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak ere. Eskabidea aurkezten den unean ez ezik, enpresak programan parte hartzen duen denbora guztian ere bete beharko da betebeharrak hori.

7. Proiektuak aldeko balorazioa lortu izana, gutxienez 60 puntukoa, 3. oinarrian jasotzen den bezala.

8. Proiektuaren izaeragatik beharrezkotzat jotzen bada, Enpresa Zerbitzuak txosten tekniko bat eskatuko dio dagokion udal-zerbitzuari, eduki teknikoak ebaluatu eta azter ditzan, deialdiaren oinarriak eta helburuak betetzen direla egiaztatzeko. Txosten horiek aldekoak izan beharko dira, programa honetan parte hartzeko.

## 3. oinarria. Eskabideak baloratzea

Eskabideak baloratzeko, probatu beharreko proiektuaren memoria bat aurkeztu beharko da, gutxienez honako eduki hauek jasoko dituena:

- Proiektuaren helburuak.
- Jardueren kronograma.
- Testatzeko lokalizazio posibleak.
- Beharrezko baldintza teknikoak.
- Proiektuaren onurak.

Hauek izango dira balorazio-irizpideak (gehieneko puntuazioa, 100 puntu):

1. Proposamena udal-estrategiekin eta -planekin bat etortzea. 0 puntutik 40ra.

Proposamena honako hauetan kokatzea baloratuko da:

– Ingurumena: kutsadura kontrolatzeko eta hiri-deskarbonizaziorako irtenbideak, naturan oinarritutako soluzioak, hiri-azpiegitura berdearen kalitatea hobetzeko ekintzak eta ekonomia zirkularraren eremuari aplikatu dakizkiokeen soluzioak.

– Industria adimendunarekin, fabrikazio aurreratuarekin, robotikarekin, zibersegurtasunarekin eta abarrekin lotutako irtenbideak.

– Hiri-mugikortasunarekin eta garraioaren deskarbonizazioarekin lotutako soluzioak edo hiri-logistikako eta azken miliako soluzioak.

– Energia: trantsizio energetikoarekin eta energia-burujabetzarekin lotutako irtenbideak.

– Hezkuntza, osasuna, kultura, aisialdia, segurtasun publikoa, ongizate-zerbitzuak, autonomia pertsonalaren sustapena eta abar hobetzea helburu duten berrikuntza sozialak.

– Gobernua eta ICTak: e-gobernua eta e-demokrazia, parte-hartzea eta gardentasuna.

2. Proiektuaren interes publikoa. 0 puntutik 30era, honela banatuta:

– Onura sozialak —kontuan hartuko da, besteak beste, proiektuak pertsonen bizi-kalitatea hobetzen laguntzen duen, kolektibo bereziki ahul bati laguntzen dion, irisgarritasuna hobetzen duen edo aukera-berdintasuna bultzatzen duen—: 15 puntu gehienez.

1.2. Ingurumen-onurak —kontuan hartuko da kutsadura murrizten laguntzen den, edo klima-aldaketa geldiarazten, hondakin gutxiago sortzen, baliabideak hobeto aprobetxatzen, biodibertsitatea babesten, eta abar—: 15 puntu gehienez.

3. Proiektuaren maila teknologikoa. 0 puntutik 15era, honela banatuta:

– Proiektu berritzaileentzako finantzaketa publikoko ildo baten laguntza badu: 10 puntu. 5 puntu urte bakoitzeko; gehienez 10 puntu.

– Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen (ZTBES) laguntza badu: 5 puntu.

4. Proiektuaren kalitate teknikoa 0 puntutik 15era. Proiektuaren koherentzia eta deskribapen-maila baloratuko dira, bai eta kronogramaren eta testatzea egin ahal izateko behar diren espezifikazio teknikoen garapen-maila ere.

Balioespena egin ondoren, baldin eta proiektuak 60 puntuko edo hortik gorako puntuazioa lortzen badu, aldeko txosten teknikoa egingo da, "Vitoria-Gasteiz, Laborategi Hiria" programan sar dadin.

#### **4.oinarria. Tasa eta prezio publikoak**

Espazio publikoaren okupazioa Tasei buruzko 7.1 Ordenantza Fiskalak arautuko du (Erabilera publikoko lurretan jarritako saltoki, barraka, salmenta-etxetxo, ikuskizun eta jolas-instalazioengatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen udal ordenantza fiskala).

Beraz, enpresek bide publikoa okupatzeko asmoa badute, hori kudeatzen duen sailak txosten bat egingo du, azaltzearen jarduerak udalarentzat duen interesa edo interes handia, hartara hoberia edo salbuespena lortzearen.

#### **5. oinarria. Parte hartzen duten enpresen eskubideak eta betebeharrak**

Vitoria-Gasteiz, Laborategi Hiria programaren esparruan onetsitako proba-proiektu bat garatzen duten erakundeek abantaila hauek izango dituzte:

– Soluzio berritzailea "in situ" esperimentatzeko behar den espazio publikoa erabili ahal izatea.

– Komunikazioa: komunikazio-ekitaldietan parte hartzea, eta udalak enpresaren eta soluzio berritzailearen publizitatea egitea, horretarako dituen baliabideen bitartez (webgunea, buletina, prentsa...), baita hiria bisitatzen duten ordezkarietzek proba-proiektua ikusi ahal izatea ere, baldin eta bisitaren xedeak proiektuaren gaiarekin zerikusia badu.

"Vitoria-Gasteiz, Laborategi Hiria" programan parte hartzen duten proba-proiektuak udalaren web-orrian argitaratuko dira —fitxa eredu bat landuko da horretarako—. Gainera, eraikin edo bide publiko batean erakusgai jarritako elementu higiezinik, ekiporik eta besterik baldin badago, xafila batekin identifikatu da. Fitxen eta identifikazio-plaken diseinu-, maketazio- eta edizio-gastuak Vitoria-Gasteizko Udalaren kontura joango dira.

“Vitoria-Gasteiz, Laborategi Hiria” programaren barruan proba-proiekturen bat garatzen duten enpresek ez dute eskubiderik izango inongo ordainketarik egin dakien, eta ez dute Vitoria-Gasteizko Udalarekin inolako kontratu-harremanik izango.

#### **6. oinarria. Enpresa onuradunen betebeharrak**

“Vitoria-Gasteiz, Laborategi Hiria” programaren barruan proba-proiektu bat garatzen duten enpresek betebeharrak hauek izango dituzte:

- Vitoria-Gasteizko Udalak eskatutako informazioa eta dokumentazioa ematea.
  - Proba-proiektua garatzeko Vitoria-Gasteizko Udalak ezarritako lekua eta epeak errespetatzea.
  - Proba-proiektua garatzeko esleitu zaien lekua onik zaintzea.
  - Proba-proiektuaren interes publikoko izaerari eta ingurumen-eragin positiboari eustea, hura “Vitoria-Gasteiz, Laborategi Hiria” programaren barruan garatzen den bitartean.
  - Garraioari, muntatze- eta desmuntatze-lanei, instalazioen kontsumoei eta besteri dagozkien kostuak beren gain hartzea.
  - Produktua edo garapena Laborategi Hiriaren webgunean argitaratzen uztea.
  - Baldin eta proba-proiektuaren izaera dela-eta batzorde teknikoak hala egin beharra dagoela uste badu, erantzukizun zibileko aseguruia kontratatzea, hura “Vitoria-Gasteiz, Laborategi Hiria” programaren barruan garatu bitartean eragin litezkeen kalteei aurre egiteko.
  - Proba-proiektuaren izaeragatik enpresa parte-hartzaileak datu pertsonalak edo konfidentzialak eskuratu ahal baditu, konpromiso-dokumentu bat sinatu beharko du informazio hori konfidentziala eta sekretua dela adierazteko, eta bermatu beharko du ez zaiola hirugarren bati jakinaraziko.
  - Udalak egiten dituen egiaztatze-jardueren menpe jartzea.
  - Proiektua onesteko orduan kontuan izandako edozein zirkunstantzia aldatuz gero, udalari jakinaraztea.
- Proba amaitzean, programaren onuradun diren enpresek amaierako memoria bat aurkeztu beharko dute, testatze saioak amaitu eta gehienez ere hiru hilabete naturaleko epean. Bertan, probak egitean lortutako emaitzei buruzko informazioa jasoko da.
- Vitoria-Gasteizko Udalak gauzatu beharreko proiektuaren azterketa espezifikoa eskatu ahal izango dio parte hartu nahi duen erakundeari, proba-proiektuaren izaeragatik beharrezkotzat jotzen badu.

Alde horretatik, deialdiaren oinarriak onartzeak berekin ekarriko du Vitoria-Gasteizko Udalari baimena ematea parte hartzen duten antolakundeen izena eta irudia erabiltzeko hura garatze aldera antolatzen diren jarduera guztietan, programari zabalkundea ematea xede delarik, eta horrek ez die eskubiderik emango trukean ordainketarik edo bestelako prestaziorik jasotzeko.

Hala ere, garapen teknologikoari buruzko informazioaren konfidentziasun osoa bermatuta dago, baldin eta informazio hori sentikorra izan badaiteke.

#### **7. oinarria. Indarraldia eta eskabideak aurkeztea. Epea eta lekuak**

Deialdia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da eskabideak aurkezteko epea, 2027ko abenduaren 31ra arte (egun hori barne).

Bide hauek baliatu ahalko dira eskabidea eta nahitaezko dokumentazioa aurkezteko:

- Vitoria-Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoa (<https://egoitzaelektronikoa.vitoria-gasteiz.org>).

Eskabidea eta gainerako dokumentazioa online erregistratu ahalko dira, erregistro elektronikoen bidez. Horretarako, identifikazio-txartel digitala erabili beharko da.

– Aurrez aurre:

– Udalaren bulego teknikoetan (Dublang margolariaren kalea), 8:30etik 14:00etara (aldez aurretik hitzordua eskatu behar da, 010 telefonoan edo udalaren web-orrian: [www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)).

– Gizarte-etxeen sareko herritarrei laguntzeko bulegoetan (HLB); aldez aurretik hitzordua eskatu behar da 010 telefonoan edo udalaren web-orrian, [www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org).

Aurrez aurre arreta emateko gunean dokumentazioa orri solteetan aurkeztu beharko da, grapa, klip edo multzokatzeko beste sistemarik erabili gabe.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4. b artikuluan xedatutakoaren arabera, eskabideak posta-bulegoetan ere aurkeztu ahalko dira, erregelamenduz ezartzen den moduan.

Deialdi honetako izapideak arintze aldera, helbide elektronikoko bat gaituta eta operatibo eduki beharko dute eskabidea egiten duten pertsonak tramitazioak iraun bitartean, hartara eskabideak arin eta eraginkortasunez ebatzi ahal izateko behar diren abisuak helarazteko, legeak ezartzen duen moduan jakinarazi beharra gorabehera.

Interesdunek eskabidea aurkezten dutelarik, oinarri hauek onartzen dituztela esan nahiko du.

Eskabideak oinarri hauen indarralditik kanpo aurkezten badira, ezesteko ebazpena emango da.

### **8. oinarria. Nahitaezko agiriak**

Agiri hauek erantsi beharko zaizkie parte hartzeko eskabideei:

– Eskabide-orria eta zinpeko aitortza: l. eranskina.

– Memoria, honako hauek jasotzen dituena: frogantza-proiektuaren deskribapena, interes publikoko izaera eta helburuak, udal-planekin edo -estrategiekin duen harremana, gauzatuko diren ekintzak eta balizko premiak, kronograma, probetarako kokalekuak etab. Era berean, proiektuak ingurumenean, pertsonengan edo haien ondasunetan izan dezakeen inpaktua minimizatzeke ezarri beharreko neurriak. Suteen kontra babesteko neurriak buruzko informazioa ere sartuko da, beharrezko bada.

– Erakundearen IFZaren kopia, eskabidea aurkezten duen pertsonaren nortasun-agiriaren kopia, eta, hura titularra ez bada, jarduteko ordezkatzeko-ahalmenaren egiaztagiria.

– Proiektua azaltzeko dokumentazio grafikoa (planoak, argazkiak, ...).

– Enpresaren ustez proiektua balioesteko baliagarria izan daitekeen beste edozein agiri.

Batzorde teknikoak beharrezkotzat jotzen badu, aseguru-konpainia edo -artekaritzaren ziurtagiria eskatuko zaio enpresari —proiektuak programan parte hartzearen aldeko ebazpenean ezartzen den gutxieneko edukia eta gutxieneko kapitala jasotzen dituela—.

Bat etorri Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 92.1.d) artikuluekin eta Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28.2 artikuluekin, ofizios egiaztatuko da ea eskatzaileak zerga-betebeharrak eta gizarte-segurantzarekikoak egunean dituen, salbu eta onuradunak horren aurka egiten badu, arrazoiak emanez.

Enpresa eskatzaileak ez badu esleitura Gizarte Segurantzaren sistemako inongo erregimeneko kotizazio-konturik, bertako bazkide guztiek egon beharko dute egunean Gizarte Segurantzaren.

### 9. oinarria. Eskabidearen akatsak zuzentzea

Bat etorri 39/2015 Legearen 68. artikularekin (urriaren 1ekoa, Administrazio Prozedura Erkidearena), eskabideak ez baditu betetzen deialdian xedatutako betekizunak, organo instrukzio-egileak interesdunari errekerituko dio zuzen ditzala hutsak 10 eguneko epean. Halaber, ohartaraziko zaio ezen, horrela egin ezear, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, betiere, ebazpena eman ondoren, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 9/2015 Legearen 21. artikulak xedatutakoaren arabera.

### 10. oinarria. Dirulaguntzak emateko prozedura

Udaleko Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailari dagokio oinarri hauetan aurreikusitako eskabideak kudeatzea.

Ekonomia Sustapen, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Saileko Enpresa Zerbitzuak, proiektua ebaluatu ondoren, eta haren izaeratik beharrezkotzat jotzen badu, dagokion udal-zerbitzuari txosten tekniko bat eskatuko dio, eduki teknikoak ebaluatu eta azter ditzan, deialdiaren oinarriak eta helburuak betetzen direla egiaztatzeko. Txosten horiek aldekoak izan beharko dira, programa honetan parte hartzeko.

Behin eskaerak jaso eta izapidetzeko onartu ondoren, eskatutako baldintzak betetzen direla egiaztatu eta proiektua ebaluatu ondoren, eta inplikaturako zerbitzuei eskatutako txosten guztiak aldekoak direla egiaztatu ondoren, Ekonomia Sustapen, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Saileko Enpresa Zerbitzuak txosten arrazoitu bat emango du, egindako balorazioaren emaitza zehaztuta. Ebazpen-proposamena egin ondoren, Tokiko Gobernu Batzarraren erabaki bidez hautatuko dira Vitoria-Gasteizko "Laborategi Hiria" deialdian parte hartuko duten proiektuak.

Halaber, ebazpenari tutoretza-txosten bat erantsiko zaio, testatu beharreko soluzioa behar bezala egikaritzen dela zaintzeko eta programan parte hartzeko aukera eman zuen ebazpenean ezarritakoaren gaineko desbideratzerik ez dela gertatzen ziurtatzeko konpromiso gisa. Kokapen fisikoagatik edo gaiarengatik proiektuarekin lotura zuzena izango duen udal arloko buruak sinatuko du dokumentu hori.

Testatze-proben iraupena, bestalde, parte-hartzea esleitzean finkatuko da, proiektua eta, zehazki, aurkeztutako kronograma aztertu ondoren. Hala ere, probatu beharreko soluzio berritzailearen izaerak hala eskatzen badu, aukera izango da testatzeko aldiaren iraupena luzatzeko, eta ebazpenean jaso beharko da hori.

Proiektua testatzeko iraupen-eparean luzapen hori Tokiko Gobernu Batzarraren erabaki bidez emango da, enpresak alde aurretik eskatuta eta Ekonomia Sustapen, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Saileko Enpresa Zerbitzuak aldeko txostena eman ondoren. Programan parte hartzea bukatu baino gutxienez 30 egun natural lehenago egin beharko da luzapena eskuratzeko eskabidea, eta, onartzekotan, deialdia itxi aurretik onartu beharko da. Onartzen bada, luzapenak ezingo du izan lehenengo eskabidea aurkeztu zenean onartu zena baino aldi luzeagorako.

Proiektua Vitoria-Gasteiz Laborategi Hiria Programarako hautatua izan delako erabakiaren eta parte hartzeko betekizunen jakinarazpena ALHAOn eta Vitoria-Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan emango dira jakitera, 3/2018 Legeak (abenduarien 5ekoa, 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa) ezarritako irizpideak betez. Gainera, 6. oinarrian ezarritakoaren arabera, eta ebazpenean hala adierazten bada, erantzukizun zibileko aseguru bat kontratatu izana justifikatu beharko du, eta proiektua egikaritu aurretik beharrezkoak diren udal-baimen eta/edo -lizentzia guztiak izan beharko ditu.

Proiektua hautatzeko ebazpenak amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren kontra, administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri ahal izango da Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegietan; 2 hilabete izango dira horretarako, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.

Nolanahi ere, alde zuzenetik aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu daiteke, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik —kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu hori berariaz edo ustez ebatzi arte—.

Ebazpen espresaren ematen bada, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkezteko epea bi hilabetekoa izango da, egintza jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik; bestela, berriz, edozein unetan aurkeztu ahal izango da, araudi espezifikoaren arabera administrazioaren isiltasunaren ondorioak sortzen diren egunaren biharamunetik.

#### **11. oinarria. Kontrolatu, ebaluatu eta ikuskatzea**

Udalak, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailaren bitartez, bere esku izango du beharrezko diren ikuskapen- eta kontrol-jarduketak egitea, eta bere esku izango du are proba-proiektua geraraztea ere, baldin eta oharretan bada ingurumenari edo pertsonen segurtasunari edo osasunari aurrekusi gabeko arriskuren bat (edozein) dakarkiola, edo enpresa eskatzaileak nahiz hirugarren enpresaren batek probetxu pribatua edo komertziala ateratzen diola proiektuari, "Vitoria-Gasteiz, Laborategi Hiria" programaren helburu den garapen teknologikoa ikusgai jarri edo frogatzetik harago.

#### **12. oinarria. Informazioa eta publizitatea**

Vitoria-Gasteiz Laborategi Hiria programan parte hartzen duten proba-proiektuak argitara emango dira udalaren web-orrian, eta, horretarako, fitxa-eredu bat prestatuko da.

Gainera, eraikin edo bide publiko batean erakusgai jarritako elementu higiezinik, ekiporik eta besterik baldin badago, xafra batekin identifikatu da. Fitxen eta identifikazio-plakak diseinu-, maketazio- eta edizio-gastuak Vitoria-Gasteizko Udalaren kontura joango dira.

#### **13. oinarria. Erantzukizunetik salbuestea**

Zerbitzua edo produktua ezartzearen ondorioz enpresa eskatzaileak sortutako gastuak oro beraren eta ez beste inoren kontura izango dira.

Bestalde, proiektu pilotua egiteak edozein baimen publiko nahiz pribatu izapidetu beharra badakar berarekin, enpresa eskatzaileak berak eta ez beste inork kudeatu beharko du hori, eta beraren gain izango da baimen horiek eskatu eta lortzearen ondoriozko erantzukizuna baimen horiek ematen dituzten pertsonen edo agintarien aurrean.

Vitoria-Gasteizko Udala ez da baimendutako proba-prozesuan enpresa eskatzaileek, erabilitako ondasun publikoek eta hirugarren pertsonak izan ditzaketen ondorio, istripu, gorabehera eta/edo ondorio txarren erantzule izango.

Era berean, Vitoria-Gasteizko Udala erantzukizunetik salbuestita geratuko da honako hauei dagokienez:

- Parte hartzen duten enpresak jabetza intelektualaren, industrialaren edo irudiaren eskubideen edozein berme ez betetzea.
- Ezarritako baldintzak ez betetzeak edo gaizki betetzeak ekar dezakeen edozein erantzukizun.
- Parte hartzen duten enpresekiko betebeharrak edo konpentsazio guztiak, baldin eta ezinbesteko arrazoiak, interes orokorra edo/eta lege-agindua direla kausa baimena deuseztatu edo bertan behera utzi behar bada. Kasu horretan, behar besteko publizitatea emango zaio dela delako zirkunstantziari.

#### **14. oinarria. Datu pertsonalen tratamendua**

Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera egingo da datu pertsonalen tratamendua, orobat aintzat hartuz Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (UE) 2016/679 Erregelamendua, datuen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreaki dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa.

Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa betetze aldera, Vitoria-Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailak jakinarazten du eskatzaileen datu pertsonalak "Sailaren jardueren kudeaketa" izeneko fitxategian sartuko dituela; Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailaren jarduerak kudeatzea du xede fitxategi horrek. Horien gaineko eskubideak baliatu nahi dituenak —norberaren datuak ikusi, aldatu, ezeztatu edo kontra agertu—, Vitoria-Gasteizko Udaleko herritarrei laguntzeko bulegoetako batera jo beharko du.

#### **15. oinarria. Berdintasun-klausulak**

Entitate onuradunak Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako 3/2007 Lege Organikoa eta Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko martxoaren 16ko 4/2005 Legean xedatutakoa bete beharko du. Era berean, errespetatu egin beharko ditu Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko otsailaren 15eko 4/2024 Legea, 2024ko martxoaren 1etik indarrean dagoena, eta Yogyakarta printzipioak: Giza eskubideen nazioarteko legedia sexu-orientazioari eta genero-identitateari dagozkienetan aplikatzeari buruzko printzipioak.

Horrela, giza eskubideen alorreko legedia eta dokumentazioa errespetatzeaz gain, pertsona onuradunaren proiektuak bat egingo du Vitoria-Gasteizko Udalak bultzatzen dituen genero berdintasuneko politikekin.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko apirilaren 8an

*Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko Administrazio Zerbitzuko burua*  
**JOSEBA ANDONI GARCÍA-ARDANAZ ARDANAZ**

### **ERANSKINAK**

Eskabide-orria

#### **I. eranskina**

<https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/eu/38/29/63829.pdf>.